


EUSKAL-ERRIA

REVISTA VASCONGADA

T. LXXII

SAN SEBASTIÁN 30 DE MAYO DE 1915

N.º 1129




JOSÉ MATÍA Y CALVO

JOSE MATIA

Ez ditugu gudariak bakarrik goitu biar. Ondo irabaziya dute gure omena, gizon jakintsu, gizon ongilleak, bestien malkuak chukatzten dituzten biyotz beruak. Orrengatik azaltzen degu gaur euskaldun ongille, beartsu zale, biyotz aundiko baten izen gogoangarria. Jose Matia da au.

Arabarra zan, Llodio'ko baztar atsegiñian jayua, makiñabat gora bera bere bizi-
ran ikusia, makiñabat negar
ill ezkeru chukatu.

Bizi zan bi-
tartian ikasi zi-
zituben beartsuen naigabe
negargarriak;
eta bildu zituben
ontasun guziyak, utzi
zituben iltzeko
orduan, bi



ASILO MATIA

beartsu eche egiteko ta bertan azken egunetan beartsu zarrak jasotzeko.

Eche oyetako bat Donostiyan jaso biar zan, Kadiz'en bestia. Uri ontako echean jaso biar ziran irurogei urtetik gorako beartsu, Donostiyan, Llodion (bere sorterriya) edo Kadiz'en jayuak.

Asmo orrekin utzi zituben Matia ongilleak bere ontasun guziyak, Kadiz'en 187 l'garren urteko Mayatzaren 29^{an} il zanian.

Etziran ordia nai bezin lazter etorri diru ayek Donostira. Amalau

urtian etzan arditik ere ikusi emen beñepin. Bañan orduban sartu zan tartian donostiar bat, biyotz bero, ongille sutsua, azkarra, pizkorra, ta onek lazter baño aguduago antolatu zituben gauzak eta berari eskerrak beartsuak daukate Donostiyan eche ederra, eche atsegiña, egiye-tako jauregiya.

Donostiar kementsu au Rikardo Bermingham jauna zan, ta bere izena Matia'ren onduan jarriya egon biar luke beartsu echean, bada batak utzi bazituben bere ontasunak, bestiak ontasun oyek beartsuentzat ekarri zituben, ta bere lanakin, bere argitasunakin, ta bere lagun-tzakiñ ipiñi zan donostiarrak oneresitzen duten eche maitagarria.

Matia'ren beartsu echea izendatzen dan beartsu leku atsegiña Zapata'ko inguruan, Lugariz'ko echadian dago. 1889'garrenurteko abendua-ren 16'an zabaldu zituben bere atiak, beartsu zarrak izan zezaten azken urtiak igarotzeko leku estitsua. Etzituben nolanaiko lanak egin Bermingham jaunak; echea bere baratz aundi, eder, apañekiñ edozein jauregi baño zoragarriyago, jaun arri eskerrak egin zan; ta berari eskerrak uriyan askok ez duten bezelako jan erana, ta lo lekua arkitzen dute beartsu zarrak.

Bañan egipen aundiyak beartsuen alde egiten bazituben Bermingham jaunak, bere buruba gordeta egiten zituben, ta beti aurreko aldera Matia'ren izena azalduaz.

Al guziya arabar zintzo arren izena goitutzen sayatu zan, ta beti esaguna izan zedin eskatu zion uri batzarrari, ta onek erabaki zuben Antigua'ko kaleik ederrena izen artakua izan zedilla, ta ala deitzen zayo geroztik Matia'ren kalia.

Bizi zan bitartian etzan gelditu Bermingham jauna al zuben guztiya beartsuben ta beren eche atsegin arren alde egiten. Bañan ez esan ango nagusi egin zanik; ez, beartsuen morroi egin zuben bere buruba.

Lan gogoangarri oyetan arrapatu zuben eriyotzak, eta il zan 1900^{garren} Apirilleko 13^{an}. Beartsubak negar egin zuten (bazuten zergatik egin) bañan uri guziyak ere samintasun aundiyakin jakin zuben berri zorigaiztoko ura.

Ondorenguk ere jarraitzen diote lenguk erakutzitako bideari ta ongille ayei eskerrak, beartsu zarrak or daukate eche atsegin ta maitagarriya.

Goitu zagun Matia'ren izen zorionekua.

Baña goitu zagun ere Rikardo Bermingham'en oroipen samur eta maitatia.